

ZERBITZUEN AGIRIA UDAL HILERRIAK

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Gure zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak guztiak Hilerrietako Araudian adieraziak daude. Kontsulta egin daiteke www.bilbao.eus webgunean edo gure bulegoetan.

Hauek dira eskubideetako batzuk:

Erabiltzaileak eskubide hauek ditu:

- Bilboko udalerrian jaiotako, bizitako edo hildako pertsona guztiak izango dute Bilboko Hilerrian ehortziak izateko eskubidea.
- Ehorzte-unitateen (panteoia, hilobia, horma-hilobia, hezurren horma-hilobia) titularrek haietan ehortzi ahal izango dituzte beren familiako kideak, beti ere laugarren graduako odolkidetasun edo/eta ezkontza ahaidetasun artekoak.
- Bilboko Hilerrian erraustu ahal izango dira hilotzak, hilotz hondarrak eta gorpuzkiak, nonahitik ekarriak izanagatik, beti ere egungo araudi sanitarioa betez.
- Hilerriak bisitatu ahal izango dira, haien sarreran adierazitako ordutegian.
- Edozein pertsonak eskuragarri izango du gure erregistroan artxibatutako informazioa, interes legitimoa duela behar bezala justifikatuz gero.
- Edozein pertsonak eskuragarri izango ditu araudiak, erregelamenduak eta gure zerbitzuen informazioa, bai eta ere udal gardentasunaren konpromisoa, gure webgunean eta Bilboko Udalaren webgunean.
- Ofizios egindako lurretik ateratze batean, interes legitimoa duten pertsonak eskuratu ahal izango dituzte gorpuzkiak.
- Lurretik ateratzea egin aurretik, Udalak jakinarazpen idatzia bidaliko die pertsona horiei, eta aldi berean, iragarki orokorra argitaratuko du, eskaera egin ez duen interesdun pertsona gehiago balego ere.
- Interesa duten pertsonak eskuragarri izango dituzte Bilboko Hilerriak bere balio historiko-artistikoak ezagutarazteko dituen baliabide espezifikoak.
- Gure zerbitzuen funtzionamendua dela eta, erreklamazioak, kexak eta iradokizunak egiteko aukera eta erantzuna jasotzekoa izango du edozein erabiltzailek. Bide telematikoa erabiliz egiteko aukera ere egon dadin bermatuko du Udalak.
- Pertsona interesatuek ehorzte-unitateen kontzesioa eskuratu ahal izango dute, haietan hilotzak eta gorpuzkiak uzteko, beti ere, aukeran badaude eta indarrean dagoen araudia betetzen bada.
- Kontzesio horien titulartasuna "mortis causa" (titularraren heriotzagatik) eskualdatuko da, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- Azken agurrak emateko edo oroimen ekitaldietarako Bilboko Hilerriaren areto komunak erabiltzeko eskubidea dute interesatuek. Horretarako, eskaera egin beharko dute eta jasotako argibideak bete.

- Interesatuiek eskubidea izango dute beren izaera pertsonaleko datuak babesteko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa, eta halaber, jasota dauden datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko edo haien aurka egiteko eskubidea izango dute.

Erabiltzaileak betebeharrak dituzte:

Udal hilerrien barruan:

- Erabiltzaileek eta bisitariak errespetatu egin beharko dituzte une oro gainerako erabiltzaile eta bisitariak, bai eta instalazioak ere.
- Ezingo da egin inolako publizitaterik edo/eta jardura ekonomikorik.
- Erabiltzaileek dituzten intimitaterako eta irudi eskubideak babestearren, baimenik gabe ezingo da egin hilobien eta beste ehorzte-unitateen argazkirik, erreportajerik, marrazkirik edo/eta margolanik.
- Erabiltzaileen ibilgailuek zirkulazio arauak bete eta seinaleei jarraitu beharko diete.
- Ezingo da sartu gorputegietan, hezurtegi nagusietan eta hilerriko langileentzako bakarrik diren beste instalazioetan.
- Animaliarik ezingo da sartu, ikusmen desgaitasuna dutenekin doazen itsu-txakurrak izan ezik.

Ehorzte-unitateen kontzesioen titulartasunaz eta titularrei buruzkoak:

- Titularrekin harremanetan jartzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak eman beharko zaizkio Administrazioari.
- Jakinarazi egin beharko dira titulartasunean edo/eta datu pertsonaletan izaten diren aldaketak.
- Titular guztiak derrigortuta daude emandako ehorzte-unitatearen eskubidearen titulua kontserbatzera edo gordailuan izatera. Zerbitzuak eskatzeko edo obretarako baimena izateko, titulu hori erakutsi behar da.
- Galduz gero, lehenbailehen jarri behar da jakinaren gainean Bilbao Zerbitzuak, titulu berria lehenbailehen egiteko.
- Edozein obra egiteko, titularrek baimena eskatu beharko diete Bilbao Zerbitzuei.
- Lur eremuan egiten diren hasierako obrak kontzesioa eman eta gehienez ere bi urteko epean egin beharko dira.
- Bai egiten diren obrek, bai ezartzen diren idazkunek errespetatu egin beharko dituzte hilerriaren funtzioak.
- Titularrek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte ehorzte-unitatea segurtasun egoera onean, ondo kontserbatuta eta itxura onarekin egon dadin. Halaber, dekorazio elementuak ezartzeko, kontuan izan beharko dituzte Bilbao Zerbitzuen jarraibideak, osasun araudia eta laneko arriskuen prebentziorako araudia.
- Zerbitzuak erabili ahal izateko, aurretik ordaindu beharko da kontzeptuengatik eta zerbitzuengatik, indarrean dagoen araudiaren arabera.